

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udalaren kirolerako 2026rako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak

Lehen. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da 2026. urtean jolas eta kirol programak edo jarduerak antolatzeko eta garatzeko dirulaguntza-deialdia arautzea, betiere aurrekontuaren mugen barruan. Programak eta jarduerak Vitoria-Gasteizko udalerrian bertan egin behar dira, eta/edo, batez ere, Vitoria-Gasteizko herritarrek zuzenean edo zeharka parte hartzeko. Helburu espezifikoak izango da jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sustatzea, ohitura osasungarriak sustatzea eta herritarrek kirol-jarduera gehiago egitea bultzatzea.

Hemen arautzen diren laguntzek dirulaguntza izaera dute, eta arau hauen mende daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua -uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua-, Gasteizko udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza (dirulaguntzen ordenantza orokorra, aurrerantzean), deialdia berariaz arautzen duten oinarri hauek, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 5.1 artikuluan aipatzen diren xedapenak.

Dirulaguntzen plan estrategikoa.

Dirulaguntzen deialdi hau indarrean dagoen Dirulaguntzen plan estrategikoaren (2025-2027) 24. lerroan kokatzen da. Plan hori Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen 2025eko urtarrilaren 17an.

Bigarrena. Aurrekontu-kreditua

Deialdi hau aldeztetik onartu da, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 17. artikuluekin bat etorritik. Hori dela eta, dirulaguntzak emateko baldintza izango da dirulaguntza emateko unean kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailaren 2026ko ekitaldiko 24.40.03.3411.48935 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio dirulaguntzak. Deialdiari dagozkion dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 385.000,00 eurokoa izango da guztira, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Gehieneko zenbateko hori honela banatuko da:

A multzoa: 198.000,00 euro.

B multzoa: 100.000,00 euro.

C multzoa: 60.000,00 euro.

D multzoa: 27.000,00 euro.

Aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen bada, proiektuak balioestearen ardura duen organoak programa horietatik beste batzuetara kreditua aldatzeko ahalmena izango du, betiere deialdi honetan onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

Adierazi den gehieneko zenbatekoaz gain, bidezkoa izango da zenbateko gehigarrik ematea dirulaguntza gisa, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe; baldin eta, horretarako kredituak deialdiaren unean erabilgarri egon ez arren, aurreikusten bada erabilgarri egongo direla dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretiko edozein unetan. Hau da, aurreikusten bada kredituak handituko direla, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) 58.2 artikuluan aurreikusten dituen kausetakoren batengatik. Zenbateko gehigarria ematekotan, aski kreditu izan beharko da erabilgarri, Erregelamenduaren 58. artikuluan aurreikusten diren zirkunstantzien ondorioz; eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu-aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 17.3 artikuluan adierazten den bezala.

Hirugarrena. Entitate onuradunak

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 9., 11. eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, irabazi-asmorik gabeko kirol entitateak nahiz beren jardunaren ezaugarriak direla-eta oinarriekin bat datozen irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradun, diruz lagun daitezkeen jarduerak antolatzen badituzte eta oinarri hauetan adierazten den moduan eta epe barruan eskatzen badute dirulaguntza.

Horretaz gain, entitate eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian edo dena delako erregistro publikoan izena emanda egon behar dute, eta eguneratuta eduki beharko dituzte beren datuak.

Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. Era berean, egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak, eta Aldundiarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, prozesu osoan ere bete beharko da azken betebeharrak hori; dirulaguntza ematen denean, obligazioa onartzen denean nahiz ordaintzen denean.

Erakunde onuradun izateko erakunde eskatzaileak ezin dira egon dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan adierazitako dirulaguntza publikoen onuradun izatea eragozten duten egoeretako batean ere.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 12. artikuluan jasotako erakunde onuradunen betebeharren barruan, honako hauek jasotzen dira:

j) Sexuagatiko eta/edo generoagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik ez sortzea.

k) Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala integratzea, biztanleriaren egoera eta behar desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; helburu eta jarduera espezifikoak txertatuz, generoaren eta beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera desberdintasunak agerian uzteko edo arintzeko; eta ekintza positiboak aurreikusiz.

l) Sistematikoki sartzeko sexua/generoa/emakumea/gizona/ez-bitarra aldagaia, edo diruz lagundutako erakundeak, hala badagokio, egokiagotzat jotzen duen beste modu bat, egiten diren estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan.

Laugarrena. Dirulaguntzaren xede diren programa eta jarduerak

Deialdia honen harira diruz laguntzen diren programa eta jarduerak 2026ko urtean gauzatu beharko dira -D multzokoak izan ezik, 2025/2026 denboraldian gauzatuko baitira horiek-, eta ondoren adierazten diren arloetakoren baten barruan sartu behar dira.

Erakundearen helburu sozialarekin bat datozen jarduerak baino ez dira diruz lagunduko.

- A multzoko programak.

A multzoko programen tipologia eta definizioa: aisialdiko kirola, jolasezko jarduera fisikoak, urteko programak, kirol ekitaldi herrikoiak, kirol prestakuntzako campusak, txapelketak, torneoak eta oroimenezko ekitaldiak.

- Kirola erregulartasunez egitea sustatzen duten jarduerak, herritar guztiei zuzenduak.

- Kirol-espezialitate bat praktikaren bidez sustatzeko eta/edo zabaltzeko programa edo jarduera irekiak.

- Hitzaldiak, mintzaldiak, etab. kirol-espezialitatea sustatzeko eta/edo zabaltzeko (Irekiak izan behar dira eta hilabete lehenago jakinarazi behar zaizkio Kirol Zerbitzuari, jarduera udalaren ohiko bideetatik zabaldu ahal izateko).

- Talde batek, 2026ko urtean eta egutegi baten baitan, aldiaren behin egiten dituen jarduerak osatzen dute haren urteko programa. Programa garaiz eta forman egin behar da, deialdi honekin bat etorritik; eta herritarrei oro har zuzenduko zaie. Oro har, ez da urteko programatzat hartzen erakundeak soilik bere bazkideentzat egiten duen barne-programazioa, ezta eskola-kiroleko edo kirol federatuko entrenamenduak ere.

- Txapelketak, torneoak eta oroimenezko ekitaldiak lehen ediziotik aurrera lagunduko dira; Andre Maria Zuria, Olarizu eta Gasteiz Hiria izenekoak barne.

- Ekitaldiaren izenez gain, egiten den edizioaren hurrenkera zenbakiak agertu beharko du txapelketaren izendapenean, eta aurreko edizioaren ondorengo ondokoa izan beharko du horrek.

- Andre Maria Zuria eta/edo Olarizu izena daramaten txapelketa, proba eta erakustaldiak dagokien jaiegunaren hurbileko egunetan burutuko dira: 15 egun aurretik edota 15 egun ostean.

A multzoko programentzako baldintzak.

- Gutxienez jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 25 aldeztatik aurreratik bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahal da dirulaguntza.

- Txapelketa, torneo eta oroimenezko ekitaldien kasuan: Andre Maria Zuria, Olarizu eta/edo Gasteiz Hiria izendapena duten bi (2) jarduera soilik onartuko dira, entitate eta kirol-modalitate bakoitzeko. Beste izendapen batekin aurkeztutako kopurua ere bi (2) izango da, gehienez, erakunde eta kirol-modalitate bakoitzeko. Goizez, arratsaldean edo egun osoan egin ahal da, baita zenbait jardunalditan ere, baina ezingo dira izan entitate berak antolatutako beste txapelketa baten data berean.

- Campus eta antzekoen kasuan: entitate bakoitzak gehienez bi (2) eskabide aurkeztu ahal ditu kirol-modalitate bakoitzeko. Horietako bakoitzean 25 lagunetik gorako parte-hartzea aurreikusi behar da. Irekiak izan behar dira. Data erakunde berak antolatutako beste campus batzuekin bat badatoz, balorazio-batzordeak hainbat faktore aztertuko ditu (modalitateak, instalazioak, langileak, antolaketa...), eskabideak proiektu gisa onartzeko edo proiektu bakar batean bateratzeko.

(Kirol-modalitatea da Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan jasotakoa).

- Hitzaldietarako, mintzaldietarako, erakusketetarako edo antzekoetarako: mota horretako jarduera bat (1) bakarrik aurkeztu daiteke entitate eta kirol-modalitate bakoitzeko.

- Ez da dirulaguntzarik emango Vitoria-Gasteizko Udalaren kirol sustapenerako kanpainan sartuta dauden edo horien antzekoak diren jardueretarako.

- Ez dira diruz lagungarriak Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo egitekoak diren jarduerak, salbu eta beren ezaugarriengatik ezinbestean hala egin beharra dagoenean. Behar bezala arazoitu beharko da hori.

- B multzoko programak.

B multzoko programen tipologia eta definizioa: izaera mugatuko kirol ekitaldi handiak.

- Estatu mailako edo nazioarteko ekitaldiak, interesgarritzat eta aukeratzat jotzen direnak.
- Dirulaguntza jaso ahalko dute 2026an egin diren nahiz egitekoak diren mendi espedizioek, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Gutxienez kideen ehuneko 25 Vitoria-Gasteizen bizi izatea.

- Espedizioko kideen ehuneko 70, gutxienez, Euskal Mendizale Federazioan federaturik egotea.

- Helburu diren gailurrek 6.000 metroko garaiera gainditzea.

- Orobat jaso ahalko dute dirulaguntza eskalada-proiektuek, atal honetako lehenengo bi baldintzak betetzen badituzte.

B multzoko programentzako baldintzak.

- Gutxienez jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 40 aldeztatik bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

- Talde horretan sartu ahal izateko, hainbat irizpide hartuko dira kontuan, hala nola aurrekontua, parte-hartzaileak (kopurua eta jatorria), txapelketa ofiziala izatea eta estatuko/nazioarteko egutegi ofizialean sartuta egotea. "Kirol Ekitaldi handitzat" jotzen ez diren jarduerak A taldera igaroko dira.

- C multzoko programak.

C multzoko programen tipologia eta definizioa: Euskal herri-kirolen programa.

Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko 2/2023 Legearen 2.3 artikuluari jarraituz, honako hau dio: "Euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraituz:" eta hauen artean "Bertako kirol-modalitateak babestea, sustatzea eta kirol-ondare gisa aitortzea". Horren haritik, diruz lagundu ahalko dira 2026an egiten diren euskal pilota, herri-kirol eta Arabako bola-jokori lotutako jarduerak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Federazio eskudunek onartutako euskal pilotaren, herri-kirolen edo eta Arabako bola-jokoaren edozein modalitatetako izatea.

- Vitoria-Gasteizko udalerrian garatzea.

- Euskal pilotako, herri-kiroletako eta Arabako bola-jokoko edozein modalitatetako ekitaldiak aurkeztu ahalko dira, aurreko A eta B multzoetan zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztelarik.

C multzoko programentzako baldintzak.

- Gutxienez jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 25 aldeztatik bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

- D multzoko programak.

D multzoko programen tipologia eta definizioa: kirol taldeek estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

2025/2026 denboraldian estatu mailako lehiaketa ofizial federatu ez profesionalen egutegian parte hartzen duten taldeak aurkeztu ahalko dira atal honetan (ikus. Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua). Honako hauek:

- Estatuko maila goreneko kategoria ez profesionaletako lehen eta bigarren mailak*.

- Kategoria absolutua (adinari dagokionez).

- Modalitate berean kategoria profesionaleko bi lehiaketa baldin badaude, Estatuko maila goreneko kategoriako lehen maila ez profesionala bakarrik hartuko da kontuan.

(*) Liga profesionaltzat joko dira Kirolari buruzko abenduaren 30eko 39/2022 Legeak 56. artikuluan zehaztutakoak.

D multzoko programentzako baldintzak.

– Gutxienez jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 35 aldez aurretik bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

– D multzo honetan nahitaezkoa da federazioak jaulkitako agiri ofiziala aurkeztea, taldeak, klubak edo dena delakoak lehiatzen den edo lehiatu den ligan izena eman duela egiaztatzen duena.

– Baztertu egingo dira Espainiako Txapelketetan eta Espainiako Kopan parte hartzeko eskaerak.

Bosgarrena. Baztertuak

Ez da dirulaguntzarik emango ezaugarri hauetakoren bat duten kirol proiektu edo ekitaldiarako:

– Deialditik kanpo geratuko dira Vitoria-Gasteizko Udalarekin kontratuz edo hitzarmenez egindako ekarpen ekonomikoa duten jarduerak.

– Teknikarien prestakuntza eta birziklatzea.

– Instalazioak edo ekipamenduak eraikitzea edo hobetzea.

– Kirol klubek, elkarteek eta federazioek lehiaketa federatu erregularrean parte hartzea edo antolatzea, deialdi honetako B eta D multzokoak izan ezik.

– Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailak programatzen dituenen antzekoak diren jarduerak, sail horren programen osagarri direnak salbu.

– San Prudentzio edo Arabako txapelketa izeneko kirol programa edo ekitaldiak, horiek berariazko deialdia dutelako edo beste administrazio batzuen zuzeneko eskumena direlako.

– Eskola kirolari dagozkion jarduerak edo ikastetxeetako barne-jardueraren barrukoak, guraso-elkarteenak eta kirol klub eta elkartenak. Ate irekien jardunaldiek eta entitatea promozionatzekoak direnek ere ez dute dirulaguntzarik jasoko.

– Unibertsitate mailako kirolari dagozkion jarduerak edo unibertsitatearen barrukoak, herri-tarrei oro har eskaintzen ez zaizkienak. Era berean, Lanbide Heziketako ikastetxeen jarduerak.

– Mendi espedizioei dagokienez, ez dira diruz lagunduko abentura kiroleko proiektuak eta hurbiltze trekkingak, ezta agentzia espezializatuek proposatu edo antolatutako jarduerak ere.

– Vitoria-Gasteizko udalerriko espazio eta instalazioetan egin ahal izanda ere, hortik kanpo egiten diren jarduerak.

– Beste edozein, baldin eta kide anitzeko organoak (deialdi honen hamargarren oinarrian arautua) hala erabakitzen badu, arrazoiak emanez, eskabideak deialdi honetan edo aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren aurka egiten badu.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko dokumentazioa, modua eta epea

20 egun baliouduneko izango da eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Hurrengo dokumentazioa aurkeztu behar da eskabide bakoitzeko:

1. Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
2. I-E eranskina. Programaren edo jardueraren proiektua.
3. II-E eranskina. Aurrekontua. Gastuen eta irabazien zerrenda.
4. III-E eranskina. Beste dirulaguntza edo laguntza publiko batzuen aitortpena.
5. IV-E eranskina. (D multzoan parte hartzen dutenek aurkeztu behar dute).

Gainera, erakunde bakoitzeko behin bakarrik aurkeztu beharko da:

6. Erakundeak egindako azken aktaren fotokopia, erakundeko kideek betetako karguak zehazten dituen, izen-abizenekin eta NANarekin.

7. Dirulaguntzen deialdira lehen aldiz aurkezten diren erakundeen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>; nahiz legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Egoitza elektronikoen bidez:

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa on line erregistratu ahalko da, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan zehaztutakoek ezinbestean erabili behar dute kanal elektronikoa.

Aurrez aurre:

– Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea.

Proiektu teknikoak, justifikazioak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak.

Euskarri horren lehen mailan (euskarriaren erroa) erabat beharrezko diren artxiiboak sartuko dira, pdf formatuan (hau da: eskabide sinatua, memoria teknikoak eta justifikazio-egiaztagirak); eskatutako gainerako agiriak (esaterako, memoria testu-prozesatzailean, justifikazioaren kalkulu-orriak, eranskinak etab.) dagozkien formatuetan txertatuko dira, eta karpeta esanguratsuetan antolatuko.

– Dokumentazioa paperean aurkeztea.

Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A-4 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Pertsona fisikoek bakarrik aurkeztu ahalko dituzte proiektuak paperean, erregistratzeko.

Nolanahi ere, eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizatzerik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, deialdian adierazitako dirulaguntzen ildoan zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 20.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak 10 egun balioduneko epea emango dio interesdunari zuzentzeko, eta adieraziko dio hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako baldintzetan emandako ebazpenaren ondoren.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

Oinarri hauetako laugarren atalean agertzen diren multzoetako jardueretarako, honako irizpide hauek jarraituko dira dirulaguntzak kuantifikatzeko eta emateko.

Entitate eskatzaileak dirulaguntza eskuratzeko aurkezten duen eskabidean eta eransten duen dokumentazioan ematen dituen datuak aintzat harturik aplikatuko dira eskabideak balioesteko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

1. Ekitaldi, txapelketa edo jardueraren kaudimena. Lortutako baliabideak.

Proposatutako programa edo jarduera gauzatzeko baliabideak edo finantzazio-iturriak (dirutan eta/edo gauzatan) bilatzeko ahalegina balioetsiko da. Guztizko gastu eta diru-sarreraren arteko proportzioa balioetsiko da, eta horretarako gastu eta sarrera gisa sartuko dira lortu diren gauzako baliabideak (materialak edo zerbitzuak), horiei esker jardueraren zuzeneko gastua txikiago izango baita.

Lankidetzaren bidez lortutako gauzako baliabideak kontuan hartuko dira jardueraren kaudimena balioesteko; baina ez dira gastuen aurrekontuaren barruan sartuko, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuari dagokion irizpidean.

Aurrekontuaren ehuneko 26 eta ehuneko 35 artean	40 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 36 eta ehuneko 45 artean	80 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 46 eta ehuneko 55 artean	120 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 56 eta ehuneko 60 artean	160 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 61etik gora	200 puntu

2. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna parte hartzean.

Entitatean parte hartzea:

Erakundearen erabakitze eta ordezkatzeko organoetan parte hartzen duten emakumeen ehuneko 40koa edo gorakoa bada: 20 puntu.

Erakundearen gizarte oinarrian parte hartzen duten emakumeen ehuneko 40koa edo gorakoa bada: 20 puntu.

Jardueran parte hartzea:

Jardueraren kirol modalitatean ordezkari txikia duen generoaren partaidetza ehuneko 21-50 artekoa bada: 30 puntu.

Jardueraren kirol modalitatean ordezkari txikia duen generoaren partaidetza ehuneko 51tik gorakoa bada: 60 puntu.

Berdintasun Plana.

Berdintasun Plana edukitzea: 60 puntu.

Oharrak:

– Entitate eskatzaileak agiri hauen bidez aurkeztuko dituen datuak: zinpeko aitortpena, eta zuzendaritza-batzordearen osaera eta entitatearen gizarte oinarria egiaztatzen dituen agiri ofizialaren jatorrizkoa edo kopia (urteko azken akta edo aldatutako estatutuak).

– Ordezkari txikia duen generoa: lurralde historikoan dauden federazio-lizentzien kopurua talde osoaren aldean.

– Berdintasun-plana izanez gero, erantsi egin beharko da, baloratu ahal izateko. Plan horiek kontrastatu ahal izango dira beste sailekin, balioespena kontuan hartzeko.

3. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzea.

Jarduera irekia izatea eta integrazioa sustatzen duten ekintza zehatzak antolatzea: parte-hartzaileen ehuneko 16-50 artean: 60 puntu.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako berariazko jarduera izatea: parte-hartzaileen ehuneko 51-100 artean: 110 puntu.

4. Berariazko programak kontuan hartzea.

4.1. Euskararen sustapen aktiboa egitea. Euskararen erabilera sustatzeko asmo esplizitua duten kirol programa edo jarduerak izatea. Ez dira sartuko kirol arloko langileen prestakuntza-ikastaroak, ezta dibulgazio-materiala edo liburu eta aldizkariak argitaratzea ere.

Jarduera bi hizkuntzetan egitea: 20 puntu.

Jarduera, euskararen erabilera sustatzeko helburu esplizitua izanik, nagusiki euskaraz izatea: 50 puntu.

Entitateak "Bai Euskarari" edo "Bikain" ziurtagiriak izatea, edo, bestela, euskararen erabilera normalizatzeko plan espezifiko bat: 20 puntu.

Jarduera balioesteko eta geroago agiri bidez justifikatzeko, argitaratutako euskarri grafiko eta bisual guztiak aurkeztu beharko dira, erakundearen web-orrian agertu ohi direnak.

Euskara Plana izanez gero, erantsi egin beharko da, baloratu ahal izateko. Plan horiek kontrastatu ahal izango dira beste sailekin, balioespena kontuan hartzeko.

Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiriak izanez gero, erantsi egin beharko dira, baloratu ahal izateko.

4.2. Gazteen parte-hartzea sustatzea (14-30 urte).

Jarduera irekia eta gazteen parte-hartzea bultzatzen duten ekintza zehatzak antolatzea (14-30 urte): ehuneko 16-50: 30 puntu.

Gazteentzako jarduerak espezifikoak (14-30 urte): ehuneko 51-100en artean. 50 puntu.

4.3. Ingurumenaren kudeaketan eta iraunkortasunean eragiten duten berariazko ekintza eta planak garatzea.

A. Garraioaren erabilera eraginkorrerako beharrezko diren teknikak aplikatzea.

Bizikleten lur azaleko aparkalekuei edo horiek gordetzeko zerbitzuei buruzko informazioa ematea, jarduerak egiteko den tokiraino bizikleta garraio bide gisa erabil dadin sustatzeko. Kirol jarduerak egiteko den tokira heltzeko garraio jasangarria eskaintzea, ibilgailu partikularrak erabil ez daitezkeen: 10 puntu.

B. Kirol probaren ingurumen-eragina gutxitzea.

Hondakinak murrizteko neurriak. Edukiontzia espezifikoak izatea, birziklatu beharreko material motaren arabera: 10 puntu.

C. Hondakinen zentzuzko erabilera. Paperaren erabilera murrizteko eta uraren erabilera eraginkorra egiteko neurriak: 10 puntu.

D. Erronka Garbia. Ekitaldien jasangarritasun Erronka Garbia ziurtagiria du: 60 puntu.

Ekitaldiak Erronka Garbia ziurtagiria badu, erantsi egin beharko da, baloratu ahal izateko.

4.4. 60 urtetik gorakoen parte hartzea.

Jarduera irekia izatea eta 60 urtetik gorakoen parte hartzea sustatzen duten ekintza zehatzak antolatzea: parte-hartzaileen ehuneko 16-50 artean: 30 puntu.

60 urtetik gorakoentzako berariazko jarduerak: ehuneko 51-100 artean: 50 puntu.

5. Jardueraren egun edo saio kopurua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Egun bat edo biko iraupena	20 puntu
Hiru eta zazpi egun artekoa	30 puntu
Zortzi eta hamabost egun artekoa	50 puntu
Hamasei eta hogeiei egun artekoa	80 puntu
Hogeiei egunetik gorakoa	100 puntu

6. Kirol esparrua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Parte-hartzaileen jatorria.

Euskal Autonomia Erkidegoa: lurraldekoa (Araba) alde batera utzita, bertakoen partaidetzak guztizkoaren ehuneko 50 baino handiagoa izan behar du: 50 puntu.

Estatua: partaidetzak, lurraldekoa (Araba) eta autonomikoa (Euskal Autonomia Erkidegoa) kenduta, guztizkoaren ehuneko 50 edo gehiago izan behar du: 100 puntu.

Nazioartea: Nazioarteko partaidetzak guztizkoaren ehuneko 25 edo gehiago izan behar du: 150 puntu.

7. Jarduerako parte-hartzaileen kopurua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Parte-hartzaile kopuruaren arabera gizarteak ateratzen duen etekina.

30-100 parte-hartzaile	25 puntu
101-300 parte-hartzaile	50 puntu
301-600 parte-hartzaile	100 puntu
601 eta 900 artean	150 puntu
900 lagunetik gora	200 puntu

8. Jardueraren zabalkundea.

Ikus-entzunezko emanaldia zuzenean: 25 puntu.

9. Faktore zuzentzailea.

Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren bitartez onartutako kirol-espezialitate eta -modalitateak.

– Onartu gabeak: bider 0,75 puntu.

Kirolik gabeko jarduerak: bider 0,75 puntu.

Faktore zuzentzailea lortutako puntuazio osoari aplikatzen zaio.

10. Gastu konputagarrien aurrekontua.

1.000 euro arte	50 puntu
1.001 eta 3.000 euro artean	75 puntu
3.001 eta 6.000 euro artean	125 puntu
6.001 eta 9.000 euro artean	200 puntu
9.001 eta 12.000 euro artean	250 puntu
12.001 eta 15.000 euro artean	300 puntu
15.001 eta 22.500 euro artean	375 puntu
22.501 eta 30.000 euro artean	575 puntu
30.001 eta 40.000 euro artean	750 puntu
40.001 eta 50.000 euro artean	1.000 puntu
50.001 eta 60.000 euro artean	1.100 puntu
60.001 eta 85.000 euro artean	1.200 puntu
85.001 eta 100.000 euro artean	1.300 puntu
100.001 eta 125.000 euro artean	1.400 puntu
125.001 eta 150.000 euro artean	1.500 puntu
150.000 eurotik gora	1.600 puntu

Irizpidea baloratzeko, oinarri hauetan konputagarritzat jotzen diren gastuak soilik hartuko dira kontuan. Gastu konputagarriak zuzenekoak eta zeharkakoak izan daitezke. Jarduera edo programaren guztizko gastu konputagarria zuzeneko eta zeharkako gastu konputagarrien baturaren emaitza da.

Gastu konputagarriak (zuzenekoak eta zeharkakoak) ondorengo taulan jaso dira, eta 10.2 eta 10.3 ataletan zehaztu, hobeto ulertarazteko eta aurrekontuak zein justifikazioak errazago egiteko.

Zuzeneko gastu konputagarriak.

Jarduera/ekitaldia antolatzeke eta gauzatzeko gastuak.

- Langile gastuak.
- Materiala erostea.
- Garraioa.
- Hornigaiak.
- Zerbitzu profesionalak.
- Inbertsioak.
- Beste gastu batzuk.

Zeharkako gastuak.

Jardueraren zeharkako gastuak (jardueraren zuzeneko gastu konputagarrien aurrekontu osoaren ehuneko 10 izango da beti).

Erakunde bakoitzak aurkezten duen zuzeneko gastu konputagarrien aurrekontu osotik zuzeneko gastu horien baturari dagokion puntuazioa esleituko zaio.

Behar bezala egiaztatzen ez diren edo agertzen ez diren datuak ez dira aintzat hartuko.

10.1. Zuzeneko gastu konputagarrien kontzeptua.

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta behar-beharrezkoak direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Jarduera bat antolatzeke edo gauzatzeko ezinbestekoak diren gastuak joko dira gastu konputagarritzat, horiek gabe ezinezkoa bailitzateke jarduera egitea.

Gastu guztiek proportzionalak, jarduerarekin lotuak eta merkatuko prezioari egokituak izan beharko dute.

Eskaera fasean aurrekontuan sartutako gasturen bat konputagarri gisa sartu eta definitu ez bada, ez da kontuan hartuko dirulaguntza balioesterakoan.

Zuzeneko gastu konputagarrien definizio hau kontuan hartuta, Kirol Zerbitzuak alderatu egingo ditu hasierako aurrekontua eta amaierako justifikazioko kontuan aurkeztutako benetako gastu konputagarria, eta zuzendu egingo du hasieran egindako aurrekontu-balioespena. Horrek hasiera batean jarduerari esleitutako kopurua gutxitzea ekar dezake.

10.2. Zuzeneko gastu konputagarrien zerrenda eta definizioa.

- Langile gastuak.

Kontratatutako langileen gastuei dagokienez honako hauek bereiziko ditugu:

Antolatzaileak ez diren pertsonak:

Jardueretan edo ekitaldietan jendaurrean arituko diren pertsonen kontratuak edo gastuak. Kirolarien edo bestelako jarduleen ordainsariak onartuko dira, mantenu ordainak eta garraioak barne, betiere beharrezkoak badira. Kanpo geratzen da erabili behar dituzten jantziak edo elementuak erostea, horrek ematen duen zerbitzuaren parte izan behar baitu.

Liga profesionalizatuetan bazter geratzen da kirolariak traspasatzea eta/edo erostea.

Ekitaldia gauzatzeko behar den pertsonalaren gastuak. Ez dira antolatzailezat joko areto-begiraleak, arloetako begirale arduradunak, azafatak, aurkezleak, ingurumen-jasangarritasunaren arloko teknikariak eta abar. Horiek guztiak laguntzaile teknikitzat joko dira.

Antolakuntzako langileak:

Kontratazio horiei dagozkien gastuak jarduera antolatu eta garatzen diharduten pertsona edo entitateak direnean zenbatu ahalko dira, baina ez entitatearen koordinazioa edota administrazio orokorra.

– Materiala erostea.

Parte-hartzaileentzako jan-edariak. Hertsiki probari dagozkion gastuak izango dira, eta ekitaldi edo jardueraren baitan horrela iragarri direnak: lasterketetako parte-hartzaileentzako jan-edariak, campusetako bazkariak, boluntarioentzako jan-edariak...

Horietatik kanpo geratzen dira aperitiboak, hamaiketakoak, proben aurkezpenetako kateringak, antolakuntzaren bazkari eta afariak, pasta party erakoak, edo antolakuntzak lasterketaren aurretik edo ondoren eskaintzen dituen bazkari eta afariak.

Sarien gastuak (garaikurrak edo beste osagai batzuk). Garaikurren ordez beste opari batzuk ematen badira, ez dira inola ere horien osagarri izango, hau da, saritzeko garaikurra ala oparia emango da.

Pertsona bakoitzeko 300,00 eurorainoko diruzko sariak onartzen dira gastu konputagarrien aurrekontua baloratzeko, baina baztertu egiten dira dirulaguntzaren gastua justifikatzeko.

– Garraioa.

Jarduerarako behar diren elementuak garraiatzea eta muntatzea. Eszenatokiak, harmailak, karpak, furgonetak eta abar hornitzeko eta alokatzeko kontratatutako enpresak. Oro har, jarduera muntatzeko beharrezkoa den material ez-galkor guztia, amaieran antolatzailearen jabetzan geratzen ez dena edo erosteko ez dena.

Espazioak eta instalazioak prestatu behar dituztenen garraio-gastuak (markajeak, neurketak, egokitze-lanak...).

Bidaia gastuak, ekitaldiko parte-hartzaileen edo ekitaldiaren antolaketan eta kontrolean parte hartuko duten estamentuen joan-etorriei dagozkienak; garraio-enpresen gastuak, ibilgailuak (autoak, furgonetak) alokatzeko gastuak, eta/edo ostatua ere. Justifikazio-kontuaren bidez behar bezala dokumentatutako joan-etorrien edo kilometrajearen gastuak ere izan ahalko dira, justifikazioari buruzko atalean jasotakoaren ildotik.

Ez ditu barne hartzen etxetik lanera egindako joan-etorriak eta jarduerak sustatzeko egindakoak.

– Hornigaiak.

Jarduera edo ekitaldirako beharrezkoak diren hornikuntza-gastuak. Denbora laburrerako balio dutenak izan behar dute, eta erabili ondoren berriz saltzeko balio ez dutenak (suntsikorrak).

– Zerbitzu profesionalak.

Erantzukizun zibileko aseguruak, jardueretarako berariazko aseguruak, parte-hartzaileen aseguruak, segurtasun-ziurtagiriak, autobabes eta/edo ebakuazio planen gastuak.

Jarduerarako kontratatutako anbulantzia, botikin, mediku, fisioterapia eta antzekoen gastuak.

Jarduera zaintzeko kontratatutako enpresen gastuak, segurtasuneko langileak, autobabeserako planen osagarriak, etab.

Sonorizazio, aparteko argiztapen, seinaleztapen eta abarretarako kontratatutako enpresen gastuak.

Jarduera modu digitalean edo inprimatuan zabaltzeko kontratatutako enpresen gastuak, ekitaldia edo jarduera ikusarazteko eginak (inprenta, streaminga...).

Jardueretarako instalazioak alokatu, erabili eta garbitzeari dagozkion gastuak, udal instalazioetan egiterik ez dagoen jarduera edo ekitaldiak badira (ongi arrazoitu beharko da hori).

Instalazio pribatuei dagozkien fakturen orduko prezioa kalkulatzeko (erabilera justifikatu eta gero), instalazio publikoei dagokiena hartuko da erreferentziatzen eta hura hartuko da oinarritzko prezioztat.

Federazio-gastuak, txapelketak egiteagatik kanon eta tasak eta ekitaldia kontrolatzeko behar diren epaile, arbitraje eta besteren gastuak. Ez daude barne, inolaz ere, kirol ekitaldiko jarduleak kontratatuzko gastuak.

Arbitrajeetarako gastuetan honakoak bereizi behar dira:

A. Arbitraje erakunde edo elkargo batek arbitrajeagatik faktura igortzen dio antolatzaileari.

Fakturen kontzeptu eta berme guztiak izan behar ditu, eta BEZa jaso, salbu eta igortzailea dagozkion BEZa ordaintzetik salbuetsita badago. Hala bada, salbuespen horren egiaztagiria erantsi behar zaio fakturari.

Fakturan honako hauek zehaztu beharko dira, banaka: epaileen izen-deiturak, arbitrajearen lekua, egunak eta ordu kopurua, eta orduko ordaindutakoa.

B. Antolatzaileak kopuru bat ordaintzen die arbitroei:

Abonu-agiri indibidualak aurkeztu behar dira, xehetasun guztiekin eta jasotzaileak izenpetuta. Ordainketa-agiri horiek justifikazio-kontuan aurkeztuko dira, zerrendatuta, zenbakituta, eta bertan honako hauek adierazita: izenburuan edo goiburuan, ekitaldi edo txapelketaren izena, egunak, lekua eta ordua; zerrendan, berriz, izen-deiturak, arbitrajeko lizentziaren zenbakia, arbitratze orduak, orduko prezioa eta ordaindutako zenbatekoa. Zerrendako alderdi guztien baturak bat etorri behar du aurkeztutako ordainketa-agirien guztizkoarekin.

PFEZren atxikipena kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari jarraituko zaio. II. Titulua. Zerga-egitatea. 9. artikulua. Salbuesitako errentak, 36. puntua. Salbuesita egonez gero, horrela adierazi behar da, jasotze-agirian edota abonu-agirian.

– Inbertsioak.

Ez dira deialdi honen xede eta, beraz, ez dira gastu konputagarriak izango.

– Beste gastu batzuk.

Aurreko ataletako definizioei erantzuten ez dieten gastuak.

10.3. Zeharkako gastuak.

– Atal honetarako, aurrekontuko zuzeneko gastu konputagarri guztiaren ehuneko 10a zenbatuko da beti.

Diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten gastuak barne hartuko dira: elektrizitatea, berokuntza, ura, telefonoa, bulego eta biltegien alokairuak, zerbitzu orokorrak, egitura-gastuak eta abar. Koordinazio eta administrazio lanez arduratzen diren langileen gastuak ere atal honetan sartuko dira.

Kontzeptu honi dagozkion gastuak justifikatzeko ez da agiririk aurkeztu beharrik.

D multzorako balorazio irizpideak.

1. Lehiaketaren kategoria ofiziala.

Kategoria ofizialen esparruak.

2. mailako kategoria nazionalean parte hartzea: 50 puntu.

1. mailako kategoria nazionalean parte hartzea: 100 puntu.

2. Lehiaketa ofizialaren jardunaldi-kopurua.

10 jardunaldi arte	20 puntu
11 eta 20 jardunaldi artean	40 puntu
20 jardunaldi baino gehiago	60 puntu

3. Joan-etorri kopurua.

Lehiaketaren egutegiaren arabera.

5 joan-etorri arte	20 puntu
6-10 joan-etorri artean	50 puntu
10 joan-etorri baino gehiago	100 puntu

4. Joan-etorrietako kilometro-kopurua.

Kilometroak, guztira, lehiaketa-egutegiaren arabera.

2.000 km arte	20 puntu
2.001 eta 5.000 km artean	50 puntu
5.001 km-tik gora	100 puntu

Zortzigarrena. Dirulaguntzak emateko prozedura

Deialdi honetako dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren III. kapituluaren arabera.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko prozedura

Entitate eskatzaileetako bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, prozedura hau baliatuko da:

– Lehena: Aurkeztutako eskabide bakoitza deialdiaosatzen duten lau programetako bati esleituko zaio, dirulaguntza eskabidean proposatutako jardueraren tipologia eta ezaugarriak kontuan hartuz.

– Bigarrena: Eskabideak balioesteko irizpide objektiboen arabera aztertuko dira eta programa bakoitzean hari esleitutako eskabide guztien puntuak batuko dira.

– Hirugarrena: Azkenik, zatiketa egingo da; programa bakoitzari dagokion diru-zenbatekoa zati lehiatzen diren eskabideen puntu guztiak. Horrela lortuko da puntu-tipoaren balio ekonomikoa, eta hori eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuak biderkatuz lortzen den kopurua izango da bakoitzarentzako dirulaguntzarako behin-behineko proposamena.

Eragiketa horiek eginda sortzen den zenbatekoa diruz laguntzeko den jardueraren benetako defizita baino handiagoa bada, azkenean proposatzen den dirulaguntza benetako defizitera doitu da, hau da, eskatzaile bakoitzari ematen zaion gehieneko kopuruak ez du inola ere gaitutako jardueraren defizita. Defizita kalkulatu da antolatzeke egin beharreko gastuak eta jarduerak ematen dituen irabaziak kontuan hartuz.

Kirol Zerbitzuak alderatu egingo du balioespenaren puntuazioa jardueraren gauzatzearen arabeko puntuazioarekin, eta zuzendu egingo du hasieran egindako aurrekontu-balioespena. Horrek hasiera batean jarduerari esleitutako eta jakinarazitako kopurua gutxitzea ekar dezake, baita balioespenean esleitutako taldea aldatzea ere.

Hamargarrena. Eskabideak balioestea eta izapidetzea, eta dirulaguntzak emateko prozedura ebaztea

Balorazio-batzorde bat eratu da eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko proposamena egiteko. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 22.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kirol Zerbitzuko teknikari espezializatuak osatuko dute batzorde hori. Honako hauek osatuko dute batzordea: Kirol Zerbitzuko Burutzak, Kirol Zerbitzuko Zerbitzu Orokorrerako Unitateko Burutzak eta Kirol Zerbitzuko Zerbitzu Orokorrerako Unitateko teknikariek.

Era berean, instrukzio-organo izendatzen da Kirol Zerbitzuko Administrazio Orokorreko teknikaria, zeinak ofizios egingo baititu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak, dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egiteko oinarri diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

Eskabideak deialdi honetako irizpideen arabera baloratu ondoren, kide anitzeko organoak, Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 22.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, txosten arrazoitu bat egingo du, egindako balorazioaren emaitza eta horien arteko hurrenkera zehaztuz.

Instrukzio-organoak, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamena, Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 23.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, udalaren webguneko iragarki-taulan argitaratuko da, eta bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da. Erakunde eskatzaileei 10 egun balioduneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organoak, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 23.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horretan, dirulaguntzak zein erakunde eskatzailearentzat proposatzen diren eta horiek zenbatekoak diren adieraziko da, eta ebaluazioan erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko dira. Alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

Behin betiko ebazpena ALHAOn argitaratuz jakinaraziko zaie interesdunei.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna, baina zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahalko dio eskumena.

24.4 artikuluan aurreikusten den bezala, legez eskatzen direnez gain, honako datu hauek jasoko dira ebazpenean:

- Dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda.
- Onuradun bakoitzari esleitutako puntuazioa eta zenbatekoa.
- Emandako dirulaguntza justifikatzeko modua.
- Gainerako eskabideen ezespen adierazia.
- Ebazpenaren aurka zein errekurtsio jar daitekeen, zein organotan eta zein epetan.

Deialdi hau ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, sei hilabetekoa da. Dagokion deialdia ALHAOean argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da epea.

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko erabakiaren jakinarazpenak ALHAOean eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ediktu-oholean egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz. Dirulaguntzak emateak edo ukatzeak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta horren aurka dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira.

Deialdi honetan berariaz arautzen ez denerako, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako erregelamendua eta aplikatzekoak diren gainerako arauak aplikatuko dira.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzak zatika ordainduko dira. Behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko 80 ofizioz ordainduko da, eta gainerako ehuneko 20a jarduera gauzatu dela justifikatu ondoren.

Jarduera gauzatzea bermatuta ez badago, erakundeak behin betiko ebazpena argitaratu aurretik jakinarazi beharko du aurreratutako ordainketari uko egiten diola. Hala ere, azkenean jarduera eginez gero, dirulaguntza ordainketa bakar batean jasoko du, jarduera amaitu ondoren eta jarduera osorik gauzatu dela justifikatu ondoren.

Hamabigarrena. Dirulaguntzak justifikatzea

Justifikazioa, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 31.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunaren nahitaezko egintza da, eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera egingo da, honako baldintza partikular hauekin:

Diruz lagundutako jardueraren benetan gauzaturako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da.

Nolanahi ere, Kirol Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, egiaztatuko du erakunde onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bat datorrela azkenean gauzaturako eta justifikaturako zenbatekoarekin. Azkenean gauzaturako jarduera txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu ahal izango da. Hori guztia, 40. artikuluan ezarritako kasuetan bidegabe justifikaturako jarduerak (osorik edo zati batean) eta dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatearen kalterik gabe. Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 1. b) eta c) idatz-zatiak.

Justifikatzeko epea:

– Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 31.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bi hilabetekoa izango da, diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia amaitzen denetik.

Deialdiaren ebazpena bi hilabete horiek igaro ondoren argitaratzen bada, entitateak hila-beteko epea izango du justifikatzeko, dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzen denetik kontatuta.

– Azaroan eta abenduan gauzatzen diren jardueren eta urteko programen kasuan, hurrengo urteko urtarrilaren 10era artekoa izango da justifikatzeko epea.

Jardueraren justifikazioa eta zabalkundea:

Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta. Honako hauek erantsi beharko dira:

– Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

Jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, onuradunei eskatuko zaie sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz:

- Emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak.
- entitateko titularrak eta plantilla.
- Kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada.

• Aplikatu diren berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.

– Txosten bat aurkeztuko da, non aurkeztuko baitira erabilitako irudiak, bai eta marka instituzionalak eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzaren zabalkunde- eta publizitate-ekintzak ikusgai egon diren euskarrien zerrenda.

– Izena ematea beharrezkoa den txapelketak edo jarduerak badira, parte-hartzaileen izenak eta horiek ordaindutako kuotak jasotzen dituen zerrenda erantsiko da.

– Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa.

Zuzeneko gastuen justifikazioa:

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, justifikazio-kontu sinplifikatua edo justifikazio-kontu arrunta erabiliko da, hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera.

Justifikazio-kontu sinplifikaturako:

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu ahal izango dute deialdiko programa guztiengatik 30.000,00 euroko edo hortik beherako dirulaguntzak jaso dituzten erakundeek. Kasu horretan, erakunde onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu sinplifikatuaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

– Diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, jasotzailea/hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data.

Gabonetan edo urtearen amaieran egiten diren jardueretan, hurrengo urtarrilean ordaindutako gastuak onartu ahal izango dira.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuz, bazkideek diruz lagundutako jarduerak egiteko jarritako kuotak barne. Honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa; diru-sarreraren jatorria den entitatea; administrazio publikoen, erakunde pribatuen edo publikoen dirulaguntzak, eta beste diru-sarrera batzuk.

– Erabili ez diren zenbatekoen itzulketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidatzearen.

– Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauek:

• Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

• Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

• Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagoen zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdi honetan adierazten den ehunekotik gorakoa, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 30.9 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. (Emandako dirulaguntzaren ehuneko 10era arteko zeharkako kostuak onartzen dira).

• Onuradunaren adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, hala badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

Nolanahi ere, organo kudeatzaileak, laginketa-teknikaren bidez, egokitzen jotzen dituen egiaztagiriak egiaztatuko ditu, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela arrazoizkoa dela egiaztatzeko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio erakunde onuradunari.

Lagina lortzeko, gutxienez izapidetzen diren espedienteen ehuneko 30 aplikatuko da.

Erakundeak laginketa-prozedura sistematiko baten bidez hautatuko dira. Laginketa-tarte bat lortzeko, espediente-kopurua lagin-zenbakiarekin (izapidetutako espedienteen ehuneko 30) zatituko da metodo horren bidez. Ondoren, ausaz laginaren lehen elementua aukeratzen da, eta, ondoren, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten gainerako erakundeak hautatzen dira.

Adibide gisa: 27 Erakunde kopurua eta egiaztatutako erakundeen gutxieneko ehunekoa ehuneko 30 bada (hau da, 9 erakunde), laginketa-tartea lortuko dugu, aurreko bi zenbakien arteko zatidura izango dena; kasu honetan, 3. Ondoren, ausaz, zenbaki bat aukeratuko da 1etik 3ra bitartean. Ausaz aukeratutako zenbaki hori, adibidez, 2.a bada, 2., 5., 8., 11., 14., 17., 20., 23., 26. espedienteek osatuko dute egiaztatu beharreko erakundeen lagina.

Justifikazio-kontu arrunterako:

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, justifikazio-kontu arrunta aurkeztu beharko dute deialdiko programa guztiengatik 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzak jaso dituzten erakundeek. Kasu horretan, erakunde onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazio-kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

– 1. atala. Funts propioen edo beste entitate batzuetatik jasotako justifikazioa.

Proiektua edo jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da atal hori.

Udalak emandako dirulaguntzaz gain beste administrazio publikoren batek emandako besterik jasotzen bada, bati edo besteri egotzi beharko zaio fakturetako bakoitza. Zerrenda bat aurkeztu beharko da, faktura bakoitza identifikatzen delarik, eta orobat adierazten zein administrazio publikori egozten zaion eta zein den zenbatekoa.

Beste administrazio baten laguntza ez bada oso-osorik Vitoria-Gasteizko Udalak diruz lagundutako jarduera bererako, egoera hori arrazoitu beharko da eta esleitu zaion zatia azaldu.

Parte-hartzaileek jarduera edo kirol ekitaldiengatik ordaindutako kuotetatik lortutako diru-sarrerak zehaztu behar dira.

Honakoengatik lortutako diru-sarrerak ere zehaztu behar dira: sarrera-salmenta, produktu-salmenta, standak hirugarrenei alokatzea, taberna eta jatetxea, eskubideen emakidagatik lortua (bidaia-agentzia, hotelak...), eta ekitaldiaren antolakuntzari lotutako bestelakoak.

– 2. atala. Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztatagiriaren zerrenda.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafikiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, aintzat hartu beharko da lege ezarritako mugapena.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagozkion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Jasotze-agiriak datu hauek hartu beharko ditu barne:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.

- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZren atxikipena (dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da). Salbuetsita egonez gero, adierazi behar da, jasotze-agirian arrazoia azalduz.
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Gabonetan edo urtearen amaieran egiten diren jardueretan, hurrengo urtarrilean ordaindu-tako gastuak onartu ahal izango dira.

- 3. atala. Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.
- 4. atala. Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Diruz lagundutako proiektuari egotzitako langileen eta gizarte-segurantzaren gastuen zere-rrenda. Bertan, langile bakoitzaren izena, soldataren zenbatekoa, PFEZ atxikipena, langilearen konturako eta enpresaren konturako gizarte-segurantzako gastuak eta udalari egotzitako ehunekoak zehaztuko dira, aipatutako 4. atalaren arabera. Taula hori aurkezten duen erakundeak datatuta, sinatuta eta zigilatuta egon behar da. Honako hauek erantsi behar dira: nominak, erakunde onuradunaren konturako, RNT eta RCL, PFEZren 110 eta 190 ereduak eta horien ordainagiriak, bai eta Gizarte Segurantzaren ordainagiriak ere.

- 5. atala. Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatuko dira.

Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsiko dira (erabilitako garraibidearen txartelak, tiketak, fakturak...), zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

- Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauetaz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

- Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian adierazten den ehuneko-rik gorakoa, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 30.9 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. (Emandako dirulaguntzaren ehuneko 10era arteko zeharkako kostuak onartzen dira).

- Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta, edo, hala badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

Justifikazio fasean sartutako gasturen bat aldeztetik eskaera fasean aurrekontuan jaso ez bazen, ez da kontuan izango justifikaziorako, salbu eta gastua konputagarria izan bazitekeen eta azkenean egin edo justifikatu ez den aurrekontuko beste bat ordeztzen badu.

Gauzazko laguntzak.

Material, hornikuntza edo zerbitzuen bidez beste enpresa edo entitate batzuetatik lortutako baliabideak justifikatzeko, emate-agiriak aurkeztuko ditu diruz lagundutako entitateak, edo laguntzaileak ziurtagiriak emango, izen soziala eta dohaintzan emandako produktu edo ondasunen balio ekonomikoa zehaztuta.

Hamahirugarrena. Pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, publizitate egokia eman beharko dute diruz lagundutako programak, ekitaldiak edo jarduerak Vitoria-Gasteizko Udalak finantzatzen dituela adierazteko.

Bereziki, betebeharrak hartu beharko dituzte aintzat:

1. Agiri, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntzaren erabilera ez sexista egin beharko dute, emakumea diskriminatzen duten irudiak edo estereotipo sexistak eragotzi, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta rol zein genero-identitateen aniztasuna sustatu irudietan.

2. Ekitaldiaren zabalkundea euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da. Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan. Ekitaldian bertan ere, irekia bada, megafoniaz ematen diren mezuak hizkuntza bietan eman beharko dira.

3. Erakundearen marken zabalkundea: Vitoria-Gasteizko Udalaren marka instituzionala agertuko da dirulaguntza jaso duten jardueren inguruko publizitate edo propaganda guztietan, hura inprimatu edo ikustea ahalbidetzen dutenean. Orobat, hiriaren marka jarriko da eragin handiena duten irudi-euskarrietan, bi markak batera erabiltzeko araudian gomendatutakoari jarraituz.

Diruz lagundutako jardueraren antolatzaileak marka instituzionalen erabilera okerra saihestu behar du, eta berariaz: markaren altuera eta zabaleraren arteko proportzionaltasuna, formak, kokapena, koloreak, tipografiak, trazuak eta elementuak.

Marka instituzionalak zuzen erabiltzen laguntzeko, honako hau adierazten da:

a) Bi marka daude: Vitoria-Gasteizko Udalaren marka instituzionala (armarria) eta hiriaren marka (Vitoria-Gasteiz).

b) Udalaren webgunean eskuratu daitezke bertsio ezberdinak, eta marka instituzionalaren zein hiriaren markaren identitate eta erabilerari buruzko eskuliburua, baita udalaren markak batera nola agertu behar diren azaltzen duen eskuliburua ere, nola eta non jarri behar diren azaltzen duten adibideak barne. Esteka: www.vitoria-gasteiz.org/ikusidentitatea.

c) Zalantzarik izanez gero, imagen-corporativa@vitoria-gasteiz.org helbidera jo daiteke.

4. Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, argitalpenen kasuan, gainera, erantzukizun-klausula bat sartu beharko da, honako testu honekin: "Proiektu hau Vitoria-Gasteizko Udalak diruz lagundu du, eta, hala ere, edukia erakunde onuradunaren erantzukizun eksklusiboa da." Udal-zerbitzuek udal-logotipoa emango diete onuradunei.

Hamalagarrena. Azpikontratazioa

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da, honako berezitasun honekin:

– Jardueraren ehuneko 100era arte azpikontratatzea baimentzen da dirulaguntzen ildo honetan.

Hamabosgarrena. Vitoria-Gasteizko udalaren beste laguntza batzuekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 16. artikuluan horretarako ezarritakoa alde batera utzita, bateraezinak izango dira udalaren beraren sail edo zerbitzuetan edo hari atxikitako erakundeetan xede, programa edo jarduera bererako jaso dezaketen beste edozein laguntza ekonomiko edo dirulaguntzarekin, salbu eta alderdiek elkarrekin berariaz baimendu badituzte.

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, dirulaguntzen zenbatekoa ez da, inola ere, diruz lagundutako proiektu edo jardueren kostua baino handiagoa izango, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Hamaseigarrena. Osasun- eta larrialdi-neurriak. Dirulaguntza aldatzea

Erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute agintariek unean-unean emandako neurriak betetzeko eta betearazteko, diruz laguntzen diren ekitaldi edo jarduera guztietan, eta erakunde onuradunaren erantzukizun eksklusiboa izango da indarrean dagoen araudia betetzea.

Agintari eskudunek neurri bereziak ezartzen badituzte, dirulaguntza aldatzea baimendu ahal izango da, bertan aurreikusi gabeko jarduerak egin ahal izateko, agintariek kasu bakoitzean onartzen dituzten neurriekin bateragarriak izango direnak. Jarduera horiek, betiere, dirulaguntzaren xedearekin lotuta egon behar dira eta ezin dituzte dirulaguntzaren helburuak funtsean aldatu.

Erakunde onuradunek, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, salbuespenez, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango diote organo emaileari, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ustekabeko zirkunstantziak agertzen badira edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoa bada. Eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea.

Hamazazpigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, jasotako zenbatekoak itzuli egingo dira, dagokion espedientea izapidetu ondoren, bertan jasotako kasuren bat gertatuz gero.

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura bat etorriko da dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta DLOren Erregelamenduan araututakoarekin.

Hemezortzigarrena. Informazioa eta aholkularitza

Kirol Zerbitzuak informazioa eta aholkularitza eskainiko die erakunde interesdunei, coordep.02@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikoaren bidez.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko azaroaren 3an

Administrazio orokorreko teknikaria
MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA VILLANUEVA

Dirulaguntza eskabidea aurkezteko erantsi beharreko dokumentazioa

1. Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
 2. I-E eranskina: programari edo jarduerari buruzko txostena.
 3. II-E eranskina: proiektuko/jarduerako irabazi eta gastuen egiaztagirien zerrenda. Aurrekontua.
 4. III-E eranskina: bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen aitortpena.
 5. IV-E eranskina (D multzoan parte hartzen dutenek aurkeztu behar dute).
- Gainera, erakunde bakoitzeko behin bakarrik aurkeztu beharko da:
6. Erakundeak egindako azken aktaren fotokopia, erakundeak kideek betetako karguak zehazten dituen, izen-abizenekin eta NANarekin.
 7. Dirulaguntzen deialdira lehen aldiz aurkezten diren erakundeen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Elkarrean Erregistro Orokorrean edo, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.

Eskabidea aurkezteko edota justifikazioa egiteko behar diren dokumentuak udalaren webgunean argitaratuko dira, esteka honetan:

http://v-g.eus/dirulaguntza_kirolerakundeak.